



GOIZEKO IZARRA IKASTOLA



2025/2026 IKASTURTEKO GIDA



Euskaraz bizi 365 egun



Tlf. 943 89 91 52

ikastola@goizekoizarra.eus

www.goizekoizarra.eus



AURKIBIDEA

0. Sarrera

1. 2025 - 2026 ikasturteko egutegia eta ordutegia

1.1. 2025 - 2026 ikasturteko egutegia.

1.2. Ordutegia

2. Ikastolaren antolamendu orokorra

2.1. Zuzendaritza taldea

2.2. Ilrakaslegoa

2.3. Gurasoekiko harremanak

2.4. Tutoretza orduak

3. Pedagogia plangintza

3.1. Egitasmoak

3.1.1. Metodologiaren eraldaketa

3.1.2. Proiektuak eta berrikuntzak ikastetxean

3.1.3. Bizikasi ekimena: Elkarbizitza positiboa eta Ongizatea

3.1.4. Babesgabetasun - zantzuak jakinarazteko betebeharra

3.2. Ekimen osagarrien egitaraua

3.2.1. Irteera pedagogikoak

3.2.2. Ohiko ekintzak

3.2.3. Eskolaz kanpoko ekintzak

4. Aginte Organoak: Eskola Kontseilua

5. Jantokia

5.1. Iraupena

5.2. Ordutegia

5.3. Zaintza

5.4. Prezioak / Kuotak

5.5. Kontigentzia Plana

6. Arlo ekonomikoa

7. Oharrak

8. Komunikazioa, zalantzak eta proposamenak

0. SARRERA

2025–2026 ikasturtearen hasiera honetan, gure ongietorri beroena helarazi nahi dizuegu: bai aurten lehen aldiz gure hezkuntza komunitatera batzen zaretenoi, bai urtez urte zuen seme-alaben hezkuntza gure eskuetan jartzen duzuenoi.

Goizeko Izarra Ikastola etengabeko hobekuntzaren aldeko kultura sustatzen duen Eskola Publikoa da, eta eskola inklusiboaren aldeko apustu sendoa egiten du.

Euskalduna eta propioa den hezkuntza-proiektu bat dugu, zeinak barne hartzen baititu curriculum proiektua, elkarbizitza - hezkidetzak proiektuak eta hizkuntza-proiektua.

Euskal kultura eta euskara zaindu eta sustatzeko konpromisoa daukagu, betiere munduko gainontzeko kulturekiko begirada irekia izanik.

Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzen dugu eta ingurumenaren arazoak ezagutu eta horiei aurre egiteko konpromisoa hartzen dugu.

Ikasle guztientzat kalitatezko eta esanguratsua den hezkuntza bermatzen dugu. Aurten ere, ilusioz ekin diogu guztion artean osatzen dugun hezkuntza komunitatearen zeregin garrantzitsuari. Izan ere, guztion partaidetza funtsezkoa da: komunitatea garen heinean, aniztasun-adierazpen guztiei erantzuteko gai izan behar dugu. Diskriminazio eta bazterkeria mota oro gaitzetsiko ditugu.

Eskubide-berdintasunaren printzipioa bermatzea da gure konpromisoa eta eskubide horiek pertsona guztientzat eta testuinguru sozial zein pertsonal guztietara iristeko ardura ere gure gain hartzen dugu.

Aniztasuna da gure jardunaren oinarri eta haur guztiek hezkuntza zuzena, bidezkoa eta aukera-berdintasunean oinarritua jasotzea bermatzen dugu

Eskura duzuen **Eskola Gida** honen bidez, Goizeko Izarra Ikastolaren funtsezko eta nabarmeneko informazioa helarazi nahi dizuegu.

Ongi izan eta elkar ikusi arte.

1. EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

1.1. 2025-2026 ikasturteko egutegia.

* H.U.I.S.*
DATA: 2025/06/25



ORR.: 1
ERREF.: pw49009

2025-2026KO ZENTROAREN EGUTEGIA

Maila: HAUR-LEHEN HEZKUNTZA

Ikastetxeko kodea: 012348
Ikastetxearen izena: CEIP GOIZEKO IZARRA IKASTOLA HLHI
Kurtsoa: 2025-2026
Udalerria: Mutriku
Lurraldea: Gipuzkoa
Ikusk. Zonaldea: Eibar: Zona 3

IRAILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

URRIA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

AZAROA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

ABENDUA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

URTARRILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

OTSAILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	

MARTXOA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

APIRILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

MAIATZA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

EKAINA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

EGUNA	GOIZEZ	ARRATSALDEZ
AL.	09:00-12:30	14:00-18:00
AS.	09:00-12:30	14:00-16:00
AZ.	09:00-12:30	14:00-18:00
OG.	09:00-12:30	14:00-16:00
OR.	09:00-12:30	14:00-16:00
TRI	09:00-13:00	
BER	09:00-12:30	

Guztira Eskola-egunak: 175

Guztira Klase-egunak: 175

Eskola-orduak guztira: 913:30

Lektiboa	15	Asteburua	15	Jardunaldi trinkoa	15	Jardunaldi berezia	15
Jaieguna	15	Klase gabeko lektibo	15	Oporraldiak	15	Zaintzari eguna	15
Herri jaia	15	Inhaureria	15	Zubia	15	Aurkezpena	15

JAIEGUNAK: Irailaren 15a eta 16a, urriaren 31a, azaroaren 24a, abenduaren 8a, otsailaren 16a eta 17a, martxoaren 19a eta 20a, eta maiatzaren 1a.

OPORRALDIAK: Abenduaren 24tik urtarrilaren 6ra eta martxoaren 30etik apirilaren 10era.

1.2. Ordutegia

IRAILEKO ORDUTEGIA: jardunaldi jarraia

TALDEAK	SARRERA	IRTEERA
HH 2	Egokitzapena	Egokitzapena
HH 3-4-5	09:00 - 09:15	13:00
LH	09:00	13:00

URRITIK MAIATZERAKO ORDUTEGIA: jardunaldi osoa

TALDEAK	SARRERA GOIZEAN	IRTEERA GOIZEAN	SARRERA ARRATSALDEAN	IRTEERA ARRATSALDEAN
HH 2	09:00etatik 09:15etara sarrera malgua edo 9:45ean	12:15	14:00	15:55
HH 3-4-5	09:00etatik 09:15etara sarrera malgua	12:30	14:00	15:55
LH	9:00	12:30	14:00	16:00

EKAINEKO ORDUTEGIA: jardunaldi jarraia

TALDEAK	SARRERA	IRTEERA
HH 2-3-4-5	09:00 - 09:15	13:00
LH	09:00	13:00

SARRERAK

- Lehen Hezkuntzako (LH) ikasleak beheko aterpean jasoko dira. Irakaslea bertara jaitsiko da taldearen bila.
- Haur Hezkuntzako (HH) ikasleak goiko aterpean bilduko dira. Irakasleak bertara jaitsiko dira ikasleen bila. Ondoren iristen diren ikasleak HHko sarreratik sartuko dira.
- Gogoratu: Kristalera barrura EZ da inor sartuko.

Eguerdiko sarrera:

- Etxean bazkaltzen duten ikasleen kasuan, kanpoko hesia 5 minutu lehenago zabalduko da.

IRTEERAK

- **Haur Hezkuntza:** Irteeran, HHko irakaslea ikasleekin batera goiko aterperaino irtengo da eta ikasle bakoitza bere guraso, zaintzaile edo familia-kideak jasotzen duela ziurtatuko du. Beste pertsona batek jasoko badu, aurretik tutoreari abisatu beharko zaio.
- **HH2 urteko** ikasleak geletan jasoko dira.
- **Lehen Hezkuntza:** LHko irakasleak ikasleekin batera jaitsiko dira kristaleraraino.

Arratsaldeko irteera:

- HHko ikasleak 5 minutu lehenago aterako dira, pilaketak saihesteko.

2. IKASTOLAREN ANTOLAMENDU OROKORRA

2.1. Zuzendaritza taldea:

- **Zuzendaria:** Ayala Garagarza (012348aa@hezkuntza.net)
- **Ikasketaburua:** Irune Galparsoro (ikasketaburua@goizekoizarra.eus)
- **Idazkaria:** Olaia Bilbao (ikastola@goizekoizarra.eus)

2.2. Irakaslegoa:

2 urteko gela HH2	A B	Ione Goikoetxea Amaia Arrizabalaga	ione@goizekoizarra.eus amaia@goizekoizarra.eus
3 urteko gela HH3	A B	Arantza Lariz Ana Blanco	arantza@goizekoizarra.eus anablanco@goizekoizarra.eus
4 urteko gela HH4	A B	Eskarne Zurikarai Nerea Lekube	eskarne@goizekoizarra.eus nerealekube@goizekoizarra.eus
5 urteko gela HH5	A B	Rosana Goikoetxea Estibaliz Iraolagoitia	rosana@goizekoizarra.eus iraolagoitia@goizekoizarra.eus
HHko laguntza	-	Miren Lore Larrinaga	mirenlore@goizekoizarra.eus

1. Maila LH 1	A B	Arantza Irueta Itxaso Azpeitia	arantzairueta@goizekoizarra.eus itxasoaz@goizekoizarra.eus
2. Maila LH 2	A B	Liñe Zendoia Agurtza Zendoia	line@goizekoizarra.eus agurtza@goizekoizarra.eus
3. Maila LH 3	A B	Alai Uranga Elisabeth Solabarrieta	alaiuranga@goizekoizarra.eus elisolabarrieta@goizekoizarra.eus
4. Maila LH 4	A B	Marian Espilla Amaia Arrizabalaga	marian@goizekoizarra.eus amaiaarri@goizekoizarra.eus
5. Maila	A	Xabier Txurruka	xabier@goizekoizarra.eus

LH 5	B	Janire Daaira	janire@goizekoizarra.eus
6. Maila	A	Sorne Elu	sorne@goizekoizarra.eus
LH 6	B	Jon Andoni Arrizabalaga	jonan@goizekoizarra.eus

Ingelera	Itziar Salegi Adina Carril Estibaliz Aranburu	itziar@goizekoizarra.eus adina@goizekoizarra.eus estibaliz@goizekoizarra.eus
Musika	Araitz Zubimendi	musika@goizekoizarra.eus
Heziketa Fisikoa	Aimar Azurmendi Iraide Burgoa	heziketafisikoa@goizekoizarra.eus heziketafisikoa2@goizekoizarra.eus
Berriztapen arduraduna (BeA)	Olatz Azpiazu Jone Garcia	olatzazpi@goizekoizarra.eus jone@goizekoizarra.eus
Jantokiko arduraduna	Nerea Arrizabalaga	jantokia@goizekoizarra.eus
PT	Andoniñe Zurikarai Aitzpea Egurbide	andonine@goizekoizarra.eus aitzpea@goizekoizarra.eus
Aholkularia	Miren Ramos Ainhua Etxenagusia	aholkularia@goizekoizarra.eus aholkularia2@goizekoizarra.eus
ALE	Eneritz Zubiaurre	ale@goizekoizarra.eus
Hezitzailea	Lourdes Urreisti Maitalen Aranberri	hezitzailea@goizekoizarra.eus hezitzailea2@goizekoizarra.eus
Hizkuntza Laguntzailea	Mariana Cortes	mariana@goizekoizarra.eus

Koordinatzaileak:

- **Haur Hezkuntza:** Jone Garcia
- **1. Zikloa LH:** Arantza Irueta
- **2. Zikloa LH:** Marian Espilla
- **3. Zikloa LH:** Xabi Txurruka

Irakasleak ez diren langileak:

Sukaldariak:

- Ion Alkorta
- Edurne Gurrutxaga
- Olga Mugerza

Jangelako begiraleak:

- Maite Mendizabal
- Kontxi Azpeitia
- Amaia Elozegi
- Leire Jainaga
- Mirari Goenaga
- Leire Beitia
- Begotxu Zelaia
- Mari Jose Agirrebengoa
- Consuelo Caamaño
- Oneka Alvaro
- Isabel Vergara

2.3. Gurasoekiko harremanak: Kurtso hasierako OHIKO gelako bilerak:

- **HAUR HEZKUNTZA:** (Aldaketak egon daitezke)

- **HH2:** irailak 4 osteguna, 17:00etan.
- **HH3:** irailak 4 osteguna, 17:00etan.
- **HH4:** irailak 29 astelehena, 17:00etan.
- **HH5:** irailak 29 astelehena, 17:00etan.

- **LEHEN HEZKUNTZA:** (Aldaketak egon daitezke)

- **LH1:** Urriak 1 asteazkena, 17:00etan bakoitza bere gelan.
- **LH2:** Urriak 1 asteazkena, 17:00etan bakoitza bere gelan.
- **LH3:** Urriak 7 asteartea, 17:00etan bakoitza bere gelan.
- **LH4:** Urriak 7 asteartea, 17:00etan bakoitza bere gelan.
- **LH5:** Urriak 2 asteartea, 17:00etan bakoitza bere gelan.
- **LH6:** Urriak 2 asteartea, 17:00etan bakoitza bere gelan.

2.4. Tutoretza orduak

Abenduan eta **ekainean**, ebaluazio saioen ondoren, **banakako bilerak** izango dituzue zuen seme-alaben tutorearekin. Bilerak hauen **eguna eta ordua aldez aurretik** jakinaraziko zaizue.

Ikasturtean zehar, **asteazkenetan 16:00etatik 17:00etara** izango duzue aukera tutorearekin hitz egiteko. **Aldez aurretik tutoreari abisatzea** eskertuko genizueke.

Ezin bazarete zehaztutako orduan etorri, **tutorearekin harremanetan jarrita** beste ordutegi bat adostu ahal izango duzue.

3. PEDAGOGIA PLANGINTZA

3.1. Egitasmoak

Gure eguneroko lana, irakas-praktika eta irakas-prozesua etengabe hobetzeko helburuarekin, prestakuntza denon ardura eta ezinbesteko tresna dela ulertzen dugu.

Ikasleei **kalitatezko ikasketa-prozesua bermatzeko**, ezinbestekoa da ekarpen teoriko berriak hausnartzea eta beste hezkuntza-esperientziak aztertzea.

3.1.1. METODOLOGIAREN ERALDAKETA

Gaur egun, **ikuspegi pedagogiko berrietan murgilduta** gaude. Ikaslea da ikaskuntza-prozesuaren **protagonista eta eragile aktiboa**, eta eskolak eskaintzen dituen **ikaskuntza-ekosistema desberdinetan** bere rola aktiboki garatzen du.

HH: MUGIMENDU AUTONOMOA	Ikaslea da ikaskuntzaren erdigunea. Mugimendu autonomoaren bidez, ikasleak aukera du ingurunea modu askean eta sortzailean esploratzeko eta bere erritmoan ikasteko. Ikaslea da ikasketa-prozesuaren eragile aktiboa. Haurrak ikertzeko eta esploratzeko joera naturala du. Eskolak espazio seguru eta aberatsa eskaintzen dio, non haurra modu autonomoan mugitu eta ikaskuntza esanguratsuak eskuratu ahal izango dituen. Honek laguntzen dio hazkunde emozional eta intelektualean.
LH 1., 2. eta 3. mailak: KIMU PROIEKTUA	KIMU proiektua ikaslearen errealitatetik hurbil dauden egoeretatik eta bizipenetatik abiatzen da. Jolasa eta esperimentazioa oinarri hartuta, ikasleak jakintza-arlo berrietara modu naturalean gerturatzen dira. KIMU lau proposamen didaktikotan egituratuta dago: Erronkak, Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura eta Matematika.
LH 4., 5. eta 6. mailak: EKI PROIEKTUA	EKI proiektuak Euskal Curriculuma garatzen du, konpetentzietan oinarrituta eta integrazioaren pedagogia erabiliz. Ikasleak benetako egoera esanguratsuen aurrean jartzen ditu, eta horiei erantzunak bilatuz, ikasitakoa egoera berrietan aplikatzen ikasten dute.
INGELESA: ELEANITZ ENGLISH PROIEKTUA	• HH3: Ingeleseko lehen urratsak. • HH 4 eta HH 5: Ready for story. • LH 1. zikloan: Hocus and Lotus. • LH 2. zikloan: Buddy (3. Maila) • EKI proiektua: 4. , 5. eta 6. mailetan.

3.1.2. PROIEKTUAK eta BERRIKUNTZAK ikastetxean

Ikastetxean hainbat proiektu eta berrikuntza pedagogiko garatzen ditugu, gure hezkuntza-eskaintza eguneratua, integratzailea eta eraginkorra izan dadin. Hona hemen aurtengo egitasmo nagusiak:

AGENDA 2030	Eskola-komunitate osoari zuzendutako garapen jasangarrirako hezkuntza-programa da. Hiru helburu nagusi ditu: 1. Gure ikastetxea ingurumen- eta gizarte-jardunbide egokien eredu bihurtzea. 2. Ingurumen- eta gizarte-arazoak identifikatzeko eta konpontzeko gai diren ikasleak hezteak. 3. Partaidetza eta ingurumenarekiko errespetua sustatzen duen hezkuntza bermatzea.
STEAM HEZKUNTZA (ZIENTZIA PROIEKTUA)	STEAM arloak (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Arteak eta Matematika) garatzeko, metodologia aktibo, ikertzaile eta ekintzailea sustatzen duen proiektua da. Generoaren ikuspegia ere kontuan hartzen da, neska eta mutilen artean bokazio zientifiko-teknikoak bultzatuz.
DIGITALIZAZIOA	Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) ziklo bakoitzera egokituta erabiltzea dugu helburu, modu praktiko, esanguratsu eta arduratsuan. Teknologiaren erabilera ez da helburu huts bat: tresna gisa ulertzen dugu, erabilera egoki, kritiko eta erantzulearekin.
BIDELAGUNA	5. eta 6. mailako ikasleei zuzendutako eskola-laguntza programa da. Zailtasun akademikoak edo gizarte-egoera desberdinengatik desabantaila duten ikasleei zuzenduta dago.

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROGRAMA. ULIBARRI - NOLEGA	Helburuak: • Euskararen erabilera areagotzea eta euskal kulturarekiko jakin-mina eta sentsibilizazioa sustatzea. • Irakasleen hizkuntza-gaitasuna indartzea. • Euskararen eta euskal kulturaren inguruko hainbat ekintza garatzea: ◦ <i>Idazleak Ikastetxean</i> ◦ Euskararen inguruko lehiaketa eta egitasmoak ◦ <i>Bertsolaritza</i> LH 4., 5. eta 6. mailan
EUSKARA eta KULTURARTEKOTASUNA UEMAko ekimena	Estatu kanpotik etorritako familiei euskararen ezagutza eta erabilera laguntzeko proiektua da. Helburua, eskolako komunitatean familia guztien partaidetza eta harreman osasuntsuak sustatzea da.
ELEANIZTASUNA	Curriculum berriak hezkuntza linguistikoaren eta eleaniztasunaren kalitatea funtsezkotzat jotzen du. Hizkuntzak dira: • Errealitatea ulertzeko • Pentsamendua adierazteko • Ezagutza transmititzeko eta mundua ikusteko eta interpretatzeko tresnak Gure eskolan, hizkuntzen ikaskuntzari lehentasun berezia ematen diogu, eta Zuzendaritza Proiektuan ez ezik, Hezkuntza eta Curriculum Proiektuetan ere jasota dago.
IK/KI Ikaskuntza Kooperatiboa	Talde-lanean oinarritutako ikasteko modua da, ikasle guztien parte-hartzea eta elkarri laguntzea sustatzen duena. Helburua da denek aurrera egitea, elkarrekin ikasiz eta elkarri lagunduz.

3.1.3. BIZIKAZI EKIMENA: ELKARBIZITZA POSITIBOA ETA ONGIZATEA.

Goizeko Izarra Ikastolan **bizikidetzan hezte**a eta ikasleen **ongizate**a lehentasunezkoak ditugu. Horretarako, gure helburuak hauek dira:

- Ingurune **seguruak, atseginak** eta **errespetuzkoak** sortzea.
- **Egiturazko indarkeria baztertzea**.
- Hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea sustatzea.

Horiek lortzeko, **BIZIKASI EKIMENA** martxan dugu, eta horren baitan **BAT taldea** (Bullying-aren Aurkako Taldea) osatuta dugu.

[Bizikasi ekimena](#)

BAT taldearen osaera:

- Ayala Garagarza – Zuzendaria eta ongizate babeserako koordinatzailea
- Iruñe Galparsoro – Ikasketaburua
- Nerea Arrizabalaga – Jangelako arduraduna
- Miren Ramos – Aholkularia
- Inplikaturako irakasleak

BAT taldearen helburuak:

- Eskola-jazarpen kasuak identifikatu eta koordinatuta ebaztea.
- Bizikidetza positiboa sustatzeko ekintzak bideratzea eta komunitate osoa inplikatzea.

Jazarpen Protokoloa:

Ondorengo kasuetan jarriko da martxan jazarpen protokoloa:

- Eskolako langileren batek jokabide desegoki edo jazarpen-esparruko portaeraren bat hautematen duenean.
- Ikasle batek bere burua edo beste ikasleren bat jazarpen egoera batean dagoela adierazten duenean.
- Gurasoek edo legezko tutoreek egoera horren berri ematen dutenean.

Protokolo hau **201/2008 Dekretuaren 33. artikuluan** oinarrituta jartzen da abian.

3.1.4. BABESGABETASUN-ZANTZUAK JAKINARAZTEKO BETEBEHARRA

Ikastetxe honek honako hau jakinarazten die gurasoei:

“Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren arabera (indarkeriaren aurrean haur eta nerabeei babes integrala emateko legea), ikastetxean uste bada ikasleren bat babesgabetasun egoeran dagoela susmatzeko zantzuak daudela; hau da, uste bada ikasle horren zaintzaileek beren eginkizunak betetzen ez dituztela, ikastetxeak egoera hori jakinarazi beharko die gizarte zerbitzuei, legeak hala aginduta. Jakinarazpena eginez gero, horren berri emango zaio ikaslearen familiari.”

3.2. Ekimen osagarrien egitaraua:

3.2.1. IRTEERA PEDAGOGIKOAK

Ikasturtean zehar, hiruhileko bakoitzean autobusa erabiliko den irteera bakarra antolatuko da. Irteera horiek gelan lantzen diren ikas-egoerekin lotura zuzena izatea lehenetsiko da.

Zenbait irteeren xehetasunak zehazteke daude oraindik, eta aurrerago emango zaizue horien berri, garaiz eta modu egokian.

	1. hiruhilekoa	2. hiruhilekoa	3. hiruhilekoa
Haur Hezkuntza	Izar Park (azaroan)	Mutriku: Herrian zehar	Zehaztu gabe
LH 1. maila	Mutriku: Nautilus Zehaztu gabe	Azpeitia: Ekoetxea eta errota	Kortezubi: Basondo
LH 2. maila	Mutriku: Herriko liburutegia Donostia: Aquarium + I tsas Museoa	Legazpi: Mirandaola Burdinola	Baratze egonaldia (gaua pasatzeko irteera)
LH 3. maila	Donostia: Eureka Zientzia Museoa	Oiartzun: Soinuenea	Herriko pizkina Mendexa Park
LH 4. maila	Zehaztu gabe	Zehaztu gabe	Zuhatza egonaldia (gaua pasatzeko irteera)
LH 5. maila	Zehaztu gabe	Aia: Pagoetako ekosistemak	Mendexa Park
LH 6. maila	Lastur: Azterkosta	Eskalada	Zuhatza egonaldia (gaua pasatzeko irteera)

LH1 eta LH 2. mailak: Igeriketa astelehen - asteazken eta ostiral arratsaldetan
Ondarroako Zaldupe kiroldegian (aldaketak egon daitezke)

LH 2A	Urriaren 1etik - Urriaren 22ra
LH 2B	Urriaren 24tik - Azaroaren 17ra
LH 1A	Azaroaren 19tik - Abenduaren 15era
LH 1B	Abenduaren 17tik - Urtarrilaren 23ra

3.2.2. OHIKO EKINTZAK : Egun Bereziak

- Gaba beltza (2025/10/30)
- Emakumeen aurkako indarkeriaren eguna (2025/11/25)
- Euskara eguna (2025/12/03)
- Gabonak-Olentzero eta Mari Domingi (aurrerago zehaztuko da)
- Danborrada (2026/01/19)
- Santa Eskea (2026/02/04)
- Inauteriak (2026/02/13)
- Emakumeen Nazioarteko eguna(2026/03/06)
- Udaberriko jaialdia / Kulturazintasun eguna (aurrerago zehaztuko da)
- LGTBQ+ fobiaren kontrako eguna (2026/05/15)

3.2.3. ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

- Eskola kirola
- Zaintza zerbitzua

4. AGINTE ORGANOAK: ESKOLA KONTSEILUA

GURASOEN ORDEZKARIAK	IRAKASLEEN ORDEZKARIAK	ZUZENDARITZA TALDEA	UDAL ORDEZKARIA
Iñigo Arrizabalaga (2026 arte) Amaia Arrizabalaga (2026 arte) Aitziber Azkue (2026 arte) Nerea Lezertua (2026 arte) Peru Vidal (2026 arte) Garbiñe Agirregomezkorta (2028 arte) Jon Badiola (2028 arte) Ane Aranberri (2028 arte) Edurne Burgaña (2028 arte) Sara Tolosa (2028 arte) Igor Etxabe (2028 arte) Irune Lizardi (2028 arte) Oihana Etxabe (2028 arte) Zumintza Itziar (2028 arte)	Andoniñe Zubikarai (2026 arte) Jone Garcia (2026 arte) Estibaliz Aranburu (2026 arte) Nerea Arrizabalaga (2026 arte) Liñe Zendoia (2026 arte) Olatz Azpiazu (2028 arte) Rosana Goikoetxea (2028 arte) Jon Andoni Arrizabalaga (2028 arte) Nerea Lekube (2028 arte) Amaia Arrizabalaga (2028 arte)	Ayala Garagarza Irune Galparsoro Olaia Bilbao (Botorik ez)	Iñintza Basterretxea
ZERBITZUETAKO PERTSONALGOAREN ORDEZKARIA			
Ion Alkorta			

BATZORDE IRAUNKORRA	
Iñigo Arrizabalaga (2026 arte) Amaia Arrizabalaga (2026 arte) Garbiñe Agirregomezkorta (2028 arte) Edurne Burgaña (2028 arte)	Andoniñe Zubikarai (2026 arte) Jone Garcia (2026 arte) Olatz Azpiazu (2028 arte) Rosana Goikoetxea (2028 arte)
Ayala Garagarza (Zuzendaria)	

5. JANTOKIA

Goizeko Izarra Ikastolako jantokian **bertan prestatutako janaria** zerbitzatzen da, eta ikasleen elikadura orekatua eta osasuntsua bermatzeko lan egiten da.

5.1. Zerbitzuaren iraupena

- Jantokia **2025eko irailaren 8tik- 2026ko ekainaren 19ra arte** egongo da martxan.
- **HH 2 urteko ikasleak**, egokitzapen-prozesuarekin jarraituz, **irailaren 29an** hasiko dira jantokira jaisten.

5.2. Ordutegia

- **Irailean eta ekainean**, ordutegi jarraia dela eta, ikasleak **13:00etan** jaisten dira jantokira. Jasotzeko ordua: **14:30ean**.
- **Urritik ekainera**, jantokira **12:30ean** jaisten dira.

5.3. Zaintza eta atsedenaldia

- Bazkal ostean, **HH 2 urteko ikasleek** aukera dute **gelan siesta egiteko edo etxera joateko**.
- Gainerako ikasleak **ikastolan egongo dira Auzolagunen begiraleen zaintzapean**, atsedenaldia eta zaintza bermatuz.

5.4. Prezioak eta kuotak

Jantokiko zerbitzua **ikasle guztiek erabili dezakete**, aurrez abisatuta.

Aurtengo kuotak hauek dira:

- **Ohiko bazkaltiarra:** 4,60 € / egunean
- **Ohiko bazkaltiarra, garraio-eskubidearekin:** 3,30 € / egunean
- **Ezohiko bazkaltiarra:** 5,20 € / egunean

5.5. [Kontigentzia Plana](#)

OHARRA: Etxean bazkaltzen duten ikasleei, 13:55etan zabalduko zaie kanpoko atea.

6. ARLO EKONOMIKOA

Batzorde Ekonomikoak erabaki duenez, bi hiruhileko bakoitzean (Urria, Abendua, Otsaila, Apirila, Ekaina) jasotako guraso bakoitzaren **25€-ko ekarpenarekin** honako gastuak ordainduko dira:

- Hiruhileko bakoitzean antolatzen diren irteeren sarrerak.
- Ikasturtean zehar beharrezkoak diren materialak.
- Tailer eta ekintza berezietako material osagarria.
- Igeriketa.
 - Foru Aldundiaren dirulaguntzaz, igeriketa zerbitzua ez da guztiz ordaintzen.
 - Ekimenaren %50 ekarpenetik ordaintzen da, eta zerbitzua jasotzen duten familiek beste %50a berari egin behar diote.
- Egonaldiak. Lo egiteko egonaldien %50a, beste erdia egonaldian parte hartzen duten ikasleen familiek ordaindu behar dute.

Ikasturtean zehar egindako ekarpen osagarriak:

Ikasturteko ebazpenak zehazten duen Liburuentzako ekarpena (uztailean)	1.zikloan 27 euro 2.zikloan 30 euro 3. zikloan 31 euro
HHko metodologia (HH 3, 4 eta 5 urtekoak)	20 euro
Ingeleseko materiala (HH4, HH5, LH1, LH2 eta LH3)	15 euro
Igeriketa (LH 1 eta LH 2)	Dirulaguntzaren arabera
Egonaldiak: LH 2., 4. eta 6. mailetan	% 50a
Saturran Guraso Elkarteko kuota (beraiek kudeatzen dute diru hori). Diru hori kobratu ahal izateko zuen banku zenbakiaren datuak erabiltzeko baimena eskatuko zaizue ikasturte hasieran.	15 euro

7. OHARRAK

- **Gelako Guraso Ordezkaritzak:**

- Gela bakoitzean guraso ordezkarik bat eta ordezeko bat hautatuko dira.
- Ordezkarik hauek izango dira ikastola eta gurasoen arteko bitartekariak, ikasturtean zehar harremanak bideratuz eta proposamenak jasoz eta bideratuz.

- **Lehen Hezkuntzako Ebaluazioak:**

- Zuen seme-alaben ebaluazio emaitzak IKASGUNEA plataforman egongo dira ikusgai.
- Ebaluazio-bilera bakoitzaren ondoren, eskolatik mezu bat jasoko duzue, notak ikusteko prest daudela jakinaraziz.
- Lehenengo mailako gurasoek IKASGUNEA plataforman [erregistratu](#) behar dute sarrera bermatzeko.

- **Ikasleen Jasotzea eta Ateratzea:**

- Ikaslea jasotzera datorren pertsona ohikoa ez bada, aurretik tutoreari jakinarazi behar zaio.
- Eskolako ordutegian ikaslea ateratzeko ere, aurretik abisatu eta pertsona bat etorri behar da jasotzera.

- **Ingurumenarekiko Konpromisoa**

- Iazko ikasle batzordean hartu ziren erabakiekin jarraituko dugu: Hamaiketako tuperrak eta papera ekiditeko toailen erabilera sustatuko da.

- Etxeko lanak eta egin beharrekoak gogorarazteko **Agenda** erabiliko da.

- **Chromebooken** zaintza arduratsua bermatzen da.

- **Gailu Elektronikak: Mugikorak eta Erloju Adimentsuak**

- Ikasleek ez dute gailu hauek behar ikastetxean.
- Gurasoekin komunikatzeko behar izanez gero, ikastetxetik deitu ahal izango dute.
- Gailuak ikastetxean itzalita eta motxilan gordeta egon behar dute.
- Ordutegian gailuari zerbait gertatuz gero (apurtzea, galtzea...) familien ardura izango da.
- Ziberjazarpena, abusu-egoerak eta bestelako erabilera desegokien aurrean, ikastetxeko zuzendaritzak diziiplina-neurriak ezartzeko eskumena du.
- Gai honi buruzko sentsibilizazio eta formazio lanak jarraituko dira, adinaren arabera gida eta programak erabiliz (Miren Ros, Altzau Burua eta Zeos programak).
- Gidak hemen eskuragarri daude:[Gidak](#)

8. KOMUNIKAZIOA, ZALANTZAK eta PROPOSAMENAK


Ikastetxeak korreo elektronikoa lehenetsiko du familiekin informazioa partekatzeko. Hala ere, bide hau erabiltzen ez duten familientzat paperezko komunikazioa erabiliko da.

Mezuak euskaraz bakarrik bidaltzen badira ere, zenbait familiei informazioa elebitan (euskara eta gaztelania) helarazten zaie.

Euskara eta Kulturartekotasunaren ekimena aintzat hartuta, hezkuntza komunitateak TELEGRAM kanala erabiltzea erabaki du. Kanala honen abantailak hauek dira:

- Idatzizko komunikazioa automatikoki hizkuntza ezberdinetara itzultzeko aukera ematea.
- Ahozko mezuak gaztelerara eta beste hizkuntzetara itzultzeko aukera izatea.

Zalantza edo proposamenik izanez gero, azpian agertzen diren harremanetarako bideak erabiltzeko gonbita luzatzen dizuegu.



Kristalera guneko postontzian ere zuen **iradokizunak uzteko aukera** daukazue.

Gogorarazten dizuegu eskolako zuzendaritza taldea **zuen eskura** dagoela, edozein zalantza edo galderari erantzuteko prest.

Nahi izanez gero, **hurbil zaitezte zuzendaritzara**.

“Hezkuntza da mundua aldatzeko armarik indartsuena”

Nelson Mandela